## 154.17. Zegama-Aizkorri

# ZEGAMA--AIZKORRI BIRTUALA




Zegama-Aizkorri 2021 era arte atzeratu behar izan zuten, baina Salomonen ezin genuen onartu Zegamarik gabeko urterik.
**Lagunduko diguzu magia bizirik mantentzen?**

Parte hartu

Emaitzak ikusi

## Nola?

Salomonek eta Zegama-Aizkorriren antolakuntzak ez dugu 2020ko ediziorik gabe geratu nahi, birtuala izan behar badu ere. Zegamako magia bizirik mantentzen lagunduko diguzu?

42 kilometroak 10 egunean egitea da gure proposamena. Zuk erabakiko duzu zein distantzia egin irteera bakoitzean eta zenbat egunean osatu ibilbidea. Egun bakar batean? Animo eta zorte on.

Entrenamendu bakoitzako distantziak gure webgunean erregistratu beharko dituzu 42 km-ra iritsi arte (ez da beharrezkoa desnibel metatua kontuan hartzea). Bete ondoren, *finisher* diploma pertsonalizatua jasoko duzu eta... 2021eko ediziorako dortsal baten zozketan sartuko zara!

# 17 EZIN GELDIRIK EGON

PRIMERAN! B2

Zegama-Aizkorri birtualean parte hartzeko eta 2021eko dortsalaren zozketan aukera izateko, urrats hauek egin behar dituzu:

1. Erregistratu eta jaso zure izena duen dortsal pertsonalizatua.
2. Erregistratu ondoren, zure profilera sartzeko aukera izango duzu. Bertan, zure jardueren erregistroa eskuz jaso ahal izango duzu.
3. Ibilbidean aurrera egin ahala sari birtualak jasoko dituzu, motibatuta egoteko, eta sare sozialetan partekatu ahal izango dituzu.
4. Osatu 42 km-ak behar beste saiotan, baina gehienez ere 10 egunean.
5. Ibilbidea osatzen duzunean, zure diploma jasoko duzu e-postaz, eta 2021eko edizioko dortsalaren zozketan sartuko zara. Horretarako, zure diploma Instagramen partekatu beharko duzu #ZegamaDesdeCasa hashtag-arekin, eta @salomon.spain eta @zegamaaizkorri kontuei jarraitzen hasi beharko duzu.
6. Azkenik, maiatzaren 24an, 2020ko edizioa egin behar zen egunean, elkar ikusiko dugu prestatzen ari garen Live berezian. Sorpresak egongo dira eta dortsalaren zozketa egingo dugu zuzenean. 18:00etan, egin bat gurekin SalomonES eta Zegama-Aizkorriko Facebookeko kontuan eta gure *YouTube* kanalean. Ezin duzu huts egin!

## FAQS

Nola igoko ditut nire jardueren erregistroak webgunera?

GPS gailu bat behar al dut jardueren erregistroa egiteko?

Zenbat denbora daukat ibilbidea osatzeko?

Osa dezaket ibilbidea entrenamendu bakar batean?

Erregistratutako jardueren desnibela kontuan hartuko da?

Zer egin behar da 2021eko dortsalaren zozketan sartzeko?

*www.salomonspain.es/zegama-virtual/eu* (moldatua)